

Xabier Olaso. Tximeletrak. Pamiela

Zure eskuak

Zure eskuak uso zuri,
zorion batean txorino bi.

Zure eskuak itzal jostari,
ene eskuetan zorion iheskor,
hasperen hegalari.

Zure eskuak
firin-faran,
zuhaitz hostoak,
neguan bakan.

Zure eskuak kaio bi,
duda-mudatan
ene magalean.

Utziezu hegalelan!

*Errezitatu bitartean, eskuekin dantza desberdinak egiteko.

Armiarmak

Matxinsaltoak dira
Amamaren bihotz taupadak,
Uso mezulariak dira bere eskuak,
Tximeletak bere betazalak,
Ehunzangoak bere betileak e
ta inurriak bere begi-niniak.

Hain zaharra izanik,
Armiarmak dituela dio amamak
Eta sareak ehundu dizkietela begietan.

Begi-lausoak direla dio sendagileak.

*Amama/amuna/ amaxiri /aitite/ aitona/ aitatxiri errezitatzeko.

Etxean Kontu Kantari, 2017-12. Xabier Olaso.

Ilargi-Milargia

Ilargi-milargia isilka-misilka
haurren gelan sartu da gaur:

Zer nahiko ote du?

Zer nahiko ote du?

Haurren ametsa lapurtu?

Ilargi-milargia,
ilargi zuria,
utz ezazu, arren,
haurtxo lotia.

Izartxo zuri bat isilka-misilka
haurren gelan sartu da gaur:

Zer nahiko ote du?

Zer nahiko ote du?

Haurren ametsa lapurtu?

Izartxo zuria,
izartxo petrala
joan zaitetz hemendik
etorri bezala.

Egunsentiaren argia isilka-misilka
haurren gelan sartu da gaur:

Zer nahiko ote du?

Zer nahiko ote du?

Haurren ametsa lapurtu?

Egunsenti lainoa
egunsenti hozkila,
utikan hemendik
goizaren bila!

* Buruz ikasi eta errezitatu. Aldi berean, poemak duen egitura behin eta berriz errepikatzen da, ordezkapenak egin eta poema berriak osatzeko.